

HISTORIAKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Historia eta memoria

Memoriaren berreskurapena enpatiaren bitartez

Jon Juaristi Elizegi

06/2016

Aurkibidea:

- Laburpena.....2. orr.
- Sarrera.....2. orr.
- Memoria.....3. orr.
 - Memoriaren formak.....5. orr.
 - Memoriaren *tranpak*.....8. orr.
- Historia.....9. orr.
 - Historia eta memoriaren arteko harremana.....10. orr.
- Memoria historikotik memoriaren espazioetara.....14. orr.
 - Museoa: memoria berreskuratzeko instrumentua.....14. orr.
 - Ameriketako Holokaustoaren Memoriaren museoa.....16. orr.
- Enpatia sortzeko beste hainbat metodo.....18. orr.
- Ondorioak.....21. orr.
- Bibliografia.....23. orr.

Laburpena

Lan honi hasierako emateko, lehenik eta behin, memoria eta historia aztertuko dira. Izan ere, memoriak eta historiak aztergai berdina dute, iragana. Ordea, biek ez dituzte metodologia eta helburua konpartitzen. Haien arteko erlazioa aldakorra izan da historian zehar eta gaur egun oraindik ere eztabaida sutsua da. Horrez gain, memoriak hainbat adar ditu, nahiz eta adar bakoitzaren deitura eta esanahia ezbaian dauden. Termino horien artean *memoria historikoa* definituko da. Hitz honek azken urteotan hainbat eta hainbat eztabaida ardaztu ditu, bai Espainia mailan baita atzerrian. Bigarren fase batean, Holokaustoaren gaia aitzaki eta abiapuntu gisa hartuta, memoria historikoa eta Pierre Noraren *memoriaren espazioa* terminoa erlazionatuz, memoria berreskuratzeko burutu diren proposamenak azalduko dira, Alison Landsbergen ideian zentratuz. Ideia hori ardaztuko duen giltzarria enpatia izango da. Izan ere, Landsbergen iritziz, memoriak berreskuratzeko metodorik eraginkorrena enpatiaren bitartezkoa da. Halaber, enpatia, sentimenduak aktibatuz lortuko da eta horretarako, instrumentu aproposa da museoa. Honela, Amerikako Holokaustoaren Museoaren erradiografia labur bat egingo da, adibide egokia baita prozesu horiek nola jorratzen diren ikusteko. Amaitzeko, enpatia sortzeko existitzen diren beste hainbat metodo azalduko dira.

Sarrera

Lan honetan memoriaren eztabaida-egoera eta bigarren mailako iturrien irakurketa eta analisi kritikoa burutuko da. Hain zehatz ere, historia eta memoriaren ezaugarri propioak aztertuko dira, historikoki zein harreman eduki duten, gaur eguneraino luzatuz. Helburua ez da memoriaren teoria bat eraikitzea, baizik eta memoria zer den azaltzea, ezaugarriak esposatzea eta historiaren eraketan eduki dezakeen ekarpena ikuspuntu pragmatiko batetik aztertzea. Dena dela, entsegu bibliografiko honen helburua ez da *memoria historikoa*ren inguruko eztabaidan zentratzea eta definizio irmo eta erabatekoa ematea. Izan ere, kategoria horretako ikerketa batek entseguaren osotasuna xurgatuko

luke eta egilearen aldetik jakintza sakonagoak edukitzea. Beraz, entsegu bibliografiko honetan memoriaren eta historiaren arteko harremanaren esposizioa egitea izango da helburua, amaieran memoria berreskuratzeko dauden formetan amaitzeko.

Memoria

Memoriak eta historiak amankomunean iragana berreraikitzeke helburu propioa dute. Ordea, historiak diziplinaren arauak jarraituz lantzen du iragana eta memoriak sortzen dituen galderei erantzuten saiatzen da. Ondorioz, memoriaren eta historiaren artean hierarkia sortzen da. Hau da, historia memoriaren beharrei erantzuteko jaiotzen da, baina aldi berean distantzia bat markatzen du harekin. Gero, memoria instrumentu bihurtzen du lehenaldia aztertzeke. Historialariak testigantzak eta iturriak konprobaketa zehatz batetik pasatzen ditu, ondoren, gertatutakoaren azalpena eman eta ekintza ugarien artean loturak egiten ditu, azkenik, iraganari buruzko interpretazio ulergarria burutuz. Historiak gauzatzen dituen ekarpen kritikoek eragiten dute memoriarekiko duen nagusitasuna.¹

Memoria bizitutako esperientzien isla denez, erabat subjektiboa eta, aldi berean, absolutua da. Hots, lehenengoa da norberak bizitzen, asimilatzen eta kontatzen ditugun esperientziak pertsonalak eta partikularrak direlako. Baina, era berean, absolutua da ez duelako konparaziorik, testuingururik ezta orokortzerik behar eta beti egia izango delako. Nahiz eta eraldaketa prozesuan egon orainean bizitzen diren egoera guztiek eraginda eta ahazteak kolpatu, izaera absolutua mantenduko du. Memoria *da*. Laburtuz, memoria indibidual edo kolektiboa orainak baldintzatzen duen kontakizuna da.²

Zamoraren hitzetan, memoria iraganeko erreprodukzio zehatz baten aurkakoa da. Are gehiago, askotan imajinazioarekin elkartu dezakegu eta bizitutakoa desioekin nahastu daiteke. Gainera, berreraketa eta birkonposizio prozesu amaigabe batean bizi da. Memoriak bere ahultasunak dituen bezala, historialariek ezin dute historia purua egin

¹ TRAVERSO, E., *El pasado, instrucciones de uso: historia, memoria, política*, Marcial Pons, Madril, 2007, 21orr.

² *Ibidem*, 22. orr.

memoriak eraginda egiten dutelako lan. Edonola ere, zehaztasun maila handiena lortzeko, metodologia erabiltzea eta iturriak kontrastatzea ezinbestekoa da.³

Bensoussanen ustez, egunetik egunera aldatzen den iraganari buruzko irudia da. Bere helburu nagusia norberaren lasaitasuna ematea da. Historia eta memoria orainalditik egiten dira, askotan oraina erabiltzen da horrorea erlatibizatzen. Holokaustoaren kasuan, adibidez, memoria kolektiboak pentsatu izan du ez zela erresistentziarik ipini antisemitismoari. Izan ere, oposizioa egon bazen, garaitzeko gaitasunik eduki ez zuela esan nahiko lukeelako. Hots, arrazoiak ez zuela garaitu irrazionaltasuna edo gorrotoa.⁴

Auschwitz kasuan gertatzen den moduan, ordea, memoria eraikitzen duten esperientziak biolentoak badira, kontzientziak ez du gertakizun guztia xurgatzen, hutsuneak ditu. Ondorioz, konplikatu da horri buruzko narrazio egituratu eta ulergarria burutzea. Izan ere, traumak azaltzerakoan, sekuentziak ez dira orden diakronikoan gogoratzen eta iraganaren presentzia orainaldian handiagoa da. Hori dela eta, Auschwitzetik atera daitezkeen memoriak ez dira hain baliagarriak informazio zehatza ateratzeko oso baldintzatu daudelako. Hau da, oroitzapenak komunikatzeko soilik balio diezaioke entzulari.⁵ Bestalde, gertakizun biolentoak, hunkigarriak diren heinean, beste ezaugarri bat dute. Gerora, trauma fundatzaileak bihurtu daitezke, zeinak era berean, identitate kolektiboaren oinarri lanak egin ditzaketen.⁶ Hau da, memoriak, historiarekin duen erlazioaz gain, beste arlo batzuetan hartzen du parte taldeen eta indibiduen ondasun bat delako. Esate baterako, identitatea existitu dadin baldintza ezinbestekoa da memoria. Identitatea, eraikuntza bat da, eta forma asko hartzen ditu: talde baten kide sentitzea, “ni”-a... baina eraikuntza bat izateak ez du esan nahi imajinario hutsa denik. Aitzitik, egiazkoa bihurtzen da norberak gauzatzen dituen ekintzen bitartez. Memoriarik gabe existitzen ez den bezala, identitatea sortzeko beharrezkoa da kontzientzia, eta identitatea eraikuntza den heinean, zein oinarri duen aurkitu behar da. Oinarria iraganeko oroitzapenek osatzen dute.⁷ Bestalde, memoriak eta Historiak elkarren artean dituzten inplikazioak kontzeptu berdinak lantzen dituztelako sortzen dira, baina

³ ZAMORA, J., “Memoria e historia después de Auschwitz” in *Isegoría*, 45. zbk., 2011, 19. orr.

⁴ BENSOUSSAN, G., *¿Auschwitz por herencia?: sobre un buen uso de la memoria*, Anthropos, Bartzelona, 2010, 24. orr.

⁵ Opus cit., ZAMORA, J., 2011, 7-8. orr.

⁶ ERICE, F., “Combates por el pasado y apología de la memoria, a propósito de la represión franquista”, *Hispania Nova*, Separata, 6. zbk., 2008, 12. orr.

⁷ BAKHURST, D., “Memoria, identidad y psicología cultural” in BAKHURST D., BELLELLI G., et al. (edk.), *Memoria colectiva e identidad nacional*, Biblioteca nueva, Madril, 2000, 43. orr.

erabilpenen artean fluktuazioa existitzen da. Hainbat adituk berezitasunik egin gabe erabiltzen du memoria soziala, memoria kultura, memoria kolektiboa edo memoria historikoa bezalako terminoak, edo horietako bat aukeratzen dute euren buruak konplikatu gabe, hots, alde zuzenetik bakoitzaren esanahia zein izan daitekeen begiratu gabe.⁸

Halbwachsen ustez norbanakoak bi memoria mota ezberdinetan hartzen du parte; bata, memoria indibiduala eta bestea, memoria kolektiboa. Norberaren izaerari eta esperientzia pertsonalei erlazionatzen zaizkion esperientziak osatzen dute memoria indibiduala. Memoria kolektiboa, aldiz, talde baten esperientzia inpersonalak gogoratzean existituko da. Bien arteko erlazioari dagokionez, memoria indibiduala memoria kolektiboaren barnean kokatu daiteke, esperientzia indibidualak taldearen testuinguruan gertatu daitezkeelako. Bestalde, memoria kolektiboak memoria indibidualak biltzen ditu eta indibidualen legeen arabera garatzen da, baina ez da haiekin nahasten eta formaz aldatzen da kontzientzia pertsonalak oroitzen ez dituenen⁹. Hau da, memoria indibidualak definitzen du memoria kolektiboa. Sarritan, memoria indibiduala egitean, kanpo erreferentziaz baliatzen gara. Memoria indibiduala espazio eta data konkretu batzuetan kokatzen ditugu, zeinak kolektibo batekin adostu ditugun, eta ondorioz, memoria kolektiboaren parte gara.¹⁰

Memoriaren formak

Esan daiteke memoria indibiduala gure identitatearen osagarri nabarmenetakoa dela, gure memoria gu baikara. Esperientzien artean, batzuk besteek baino garrantzi gehiago handiagoa hartzen dute haiek osatzen dituzten sentimenduen arabera.¹¹ Kontuan eduki behar da esperientzia indibidualak testuinguru sozial eta kultural batean gertatzen direla, hots, memoria indibiduala eta kolektiboa elkarbizitzen direla. Beraz, memoria indibidualak testuinguru sozial eta kulturalaren – zeinak, noski, kolektiboak diren- berri ematen digu. Halaber, memoriak iraganari buruzko informazioa ematen digun bezala,

⁸ Opus cit, ERICE, F., 2008, 17. orr.

⁹ HALBWACHS, M., *La memoria colectiva*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza, 2004, 54. orr.

¹⁰ Ibidem, 57. orr.

¹¹ LLONA, M., “Memoria e identidades. Balance y perspectivas de un nuevo enfoque histórico”, in BORDERÍAS, D., (ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, 2. edizioa, Bartzelona, 2009, 380. orr.

eraldaketa prozesu konstantean dago eta orainaren eraginpean kontatzen du esperientzia.¹²

Bestalde, memoria kolektiboa talde bateko iraganari buruz partekatzen dituen esperientziak, jakintzak, ohiturak eta abarrek sortzen duten multzoa eta identitatea da. Memoria hori orainaldian eraikitako lehenaldiari buruzko narrazioa da, non gertakizunak eta haien balorea pertsonalki aukeratzen diren eta taldearen ideologia, munduaren ikuspegia eta abar osatzen dute.¹³ Bensoussanen ustez, memoria kolektiboa ez da beti memoria indibidualetik ateratzen. Izan ere, memoria kolektiboa manipulatu daiteke, adibidez, historia berridatziz komunikabideen bitartez edo museoen bitartez.¹⁴ Halbwachsen eskemetan oinarrituz, oso zaila da memoria indibidualaren eta kolektiboaren artean desberdintasunak aurkitzea. Memoria indibiduala beti da kolektiboa hein handi batean, hizkuntza bezala, adibidez. Memoria indibidual purua zera izango litzateke, pertsona batek soilik erabiltzen eta ulertzen duen lengoiaia baten antzekoa. Kontzeptu hori dela eta, Jan eta Aleida Assmannek Halbwachsen memoria indibidualaren alde soziala *komunikazio memoria* terminoarekin definitu dute. Memoria mota hori pertsonen arteko interakzioaren fruituz sortzen diren sentimenduek osatuko lukete. Emozioek ematen diete zentzua eta gogoratzeko ahalmena gertakizunei.¹⁵

Memoria historikoa memoria gogoratzen edo idazten den modua da eta praktika ofizialak zein iturri idatziak bereganatzen ditu,¹⁶ hau da, memoria indibidual eta kolektiboetatik aukeratu eta gauzatu egiten dena. XX. mendean zehar klase azpiratuek memoria historikora egin dute salto bere memoria eskuratzeko. Kasu askotan talde hauek garaituak izan ziren, eta noski isilarazteko erreprimituak. Ordea, memoria historikoaren eraikuntzak iraganari buruzko erantzukizunak exijitzen ditu. Helburu konplikatu horren sariak memoria historiko adostu eta demokratikoa izan beharko luke.¹⁷

Memoria kolektiboa memoria historikoan bihurtzeak bi esanahi ditu; bata, oroitzapena ahanzturari gailentzen zaiola eta bestea, taldeak duen boterearen erakustaldi bat dela

¹² Ibidem, 363. orr.

¹³ Opus cit, ERICE, F., 2008, 78. orr.

¹⁴ Opus cit., BENSOUSSAN, G., 2010, 36. orr. Neure aburuz, memoriak ez du tranparik egiten, absolutua delako, *memoria da*. Ondorioz, ezin da memoria manipulatu batez hitz egin, betiere lekukoak intentzio garbiekin hitz egiten badu. Bensoussan berak dioen bezala, memoriak norberaren lasaitasuna bilatzen du, eta beraz, inkontzienteki manipulatzeko du bere funtzioetako bat horixe bera delako.

¹⁵ ASSMANN, J., *Religion and Cultural Memory*, Stanford University, California, 2006, 3. orr.

¹⁶ Opus cit, ERICE, F., 2008, 81. orr.

¹⁷ Opus cit., LLONA, M., 2009, 374-375. orr.

memoria historikoa eraiki duelako agente politiko eta kulturalekin borrokatu ondoren. Memoria historikoaren euskarria dokumentu idatzia – edo beste edozein artefaktu kultural- da. Gertakizun biolentoei memoria kolektiboaren eraketa errazten dute bizipen traumatikoak errazago gogoratzen ditugulako – eta ia beti kolektiboari eragiten dietelako, hots, biolentzia indibiduala beti egokitu daitekeelako eskema kolektibo batean-. Memoria kolektiboaren biziraupena, hura osatzen duten memoria indibidualen iraunkortasunak eta auto-produkzioaren arabera da.¹⁸ Ruiz Vargasen arabera, memoria historikoarekin ez zaio erreferentzia egiten iragan pertsonalari, baizik eta memoria *berezi* bati buruz mintzatzen gara. Hain zehatz ere, bere funtzioa indibiduo edo kolektibo baten gertakizun zehatz batzuk gogoraraztea eta bizirik mantentzea izango litzateke. Bere ustez, Espainiako kasua adibide gisa hartuz, historian zehar gertatu diren ekintzak, oraindik itxi gabe, *lapurtuta* eta jabeen itzuli barik daudenak aldarrikatzeko balioko luke. Gainera, memoria historikoaz hitz egitean doinu errebindikatiboan egiten da, hau da, nolabait, memoria ofizialak gutxietsi duen memoria izango balitz bezala. Beraz, memoria historikoaren erabilera ahanzturaren aurkako ekintza izango litzateke.¹⁹

Memoria, ahozko testigantzen bitartez, gaur egungo historiografiaren instrumentu bilakatu da. Jasotzen den informazioa ez da erabiltzen gertakizunen inguruko beste dokumentu batzuekin kontrastatzeko, baizik eta lekukoak zein modutara interpretatzen eta azaltzen dituen gertakizunak. Ahozko lekukotasunean oinarritzen den historialariak, historia bera birdefinitu lezake esanez memoria historia mota bat izan daitekeela.²⁰

Ahozko memoriak historiografi ofizialari aurre egin dio egia berri baten bila eta memoriaren auziari beste ikuspuntu bat ekarriz. Halaber, batez ere klase azpiratuen inguruan, beste historia bat eraikitzea ahalbidetu du. Nahiz eta historiografia tradizional eta positibistatik kritikak jaso, subjektibotasunetik abiatuta, bere balioa aldarrikatu du. Hala, informazio subjektiboak beste galdera batzuk exijitzen ditu, baita iragana analizatzeko beste modu bat. Hori dela eta, lehenaldiko prozesuak eta eraikuntzak garrantzia hartu dute interpretatzeko modu berriekin batera. Metodo berri horiek positibismotik aldendu dira, eta psikoanalisi zein literaturaren kritikaren teoriara hurbilduko dira. Nahiz eta oroitzapenak esperientzia historikoaren deskripzio objektiboa

¹⁸ Opus cit., LLONA, M., 2009, 372. orr.

¹⁹ RUIZ VARGAS, J. M., “¿De qué hablamos cuando hablamos de “memoria histórica”? Reflexiones desde la psicología cognitiva” in *Entelequia, Revista Interdisciplinar: Monográfico*, 7. zbk., 2008, 73. orr.

²⁰ Opus cit., ERICE, F., 2008, 85-86. orr.

ez egin, esperientzian bertan dute jatorria eta ondorioz, iturri garrantzitsua bihurtzen dira²¹. Bestalde azken urteetan, ahozko memoriaren sendotzea eta aurrerapena geldituta geratu da erakundeetatik jasotako babes eskasagatik, unibertsitateetatik bereziki, eta korrante postmodernoarean aurrean historiografia oinarri tradizionaletan ezkutatu delako aurrerapenari bizkarra emanez.²²

Memoriaren *tranpak*

Memoriak, dena den, tranpak egiteko ahalmena ere badu. Esate baterako, Washingtonek, Holokaustoaren museo eraiki eta urtebete beranduago, Ruandako genozidioa EEUU ez zen saiatu geldiarazten. Frantziako estatuak ere, Ruandako genozidioaren zeharkako parte hartzea eduki ondoren, 1997-1998 ureen artean Frantzian “memoria irakaspenari” buruz hitz egiten zen. Ordea, 2000. urtean, Estocolmon, mundu guztiak egin zuen “memoriaren zorra eta zainketaren” alde.²³ Modu berean salatzen du Perry Andersonnek Pierre Noraren enpresaren moralitate bikoitza; memoriaren espazioen aldarrikapena egiten duen bitartean, Frantziak kolonietan burututako sarraskiak ahazten ditu.²⁴ Memoriaren erabileren artean politikoa ere badago, gaur egungo sistemaren legitimazioa negatibo eran egiteko erabilia izan baita; hau da, Auschwitzek gaizkia absolutua irudikatzen badu, gure sistemak ongia absolutua ordezkutzen du.²⁵

Alderantziz aztertu ezker, memoriak historiak bete ez duen lekua hartu dezake. Hego Ameriketako egon diren biolentzi eta gerra kasu guztien ondorioz, memoriak ez du zentzu historiografiko batean jokatzeko. Izan ere, memoriak gizartearen erreparazio funtzioa eduki beharko lukeela baieztatzen du Gaboritek, hildakoek utzitako espazioa berreskuratu eta sarraskiak ahalbidetu dituzten mekanismoak agerian utziko lituzkeelako. Memoriari emandako esanahi hori Hego Ameriketako gizartearekin erlazionatu beharko genuke. Nolabait, Espainian Frankismoarekin egiten den prozesu antzekoa da, non Historia egin beharrean ahaztea gomendatzen da. Helburu horrekin, isiltasuna defendatzeaz gain, Historia manipulatzeko saiatzeko da boterea; gertakizun zehatzak aukeratu eta besteak isilean gordez, biktimak errudun bihurtuz... Honela, memoria historikoak memoria kolektiboari eta indibidualei identitatea emango lieke

²¹ Opus cit, LLONA, M., 2009, 360-362. orr.

²² Opus cit., LLONA, M., 2009, 366-368. orr.

²³ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 43. orr.

²⁴ ANDERSON, P., *Los fines de la historia*, Anagrama, Barcelona, 1997, 53. orr.

²⁵ Opus cit, ERICE, F., 2008, 92-93. orr.

biktimak duinduz.²⁶ Ordea, historiaren izaera zientifikoak ez du galarazi legitimazio funtzioak betetzea, zeinak isiltasunaren eta ahanzturaren forma hartu duten, eta soilik antzemangarriak izan diren isilaraziak izan direnen memoriak salatu dituztelako.²⁷

Historia

Historia, memoria bezala, beti orainaldipean idazten da eta zientzia bihurtu nahi badu, memoria alde batera utzi beharko du subjektiboa delako eta tratatzen jakin beharko du. Izan ere, memoriak kronologia, berreraikitzea eta arrazonamendua alboratzen dituen heinean, iraganari buruzko ikuspegia singularra da. Esate baterako, lekuko bati Auschwitzeko argazki batek zentzumenezko pertzepzioak gogoraraziko dizkio, hots, enpatizatzeke ahalmena nabarmen handiagoa izango da. Lekuko batek emandako informazioa memorian oinarritzen denez, historialariak tratatzen jakin behar du; ez du alde batera utzi behar, errespetatu, ikertu eta ulertzea da helburua, inoiz ez azpiratuz. Historialaren eginbeharra egoera horretan, kontakizuna testuinguru orokor batean ipintzea izango litzateke, ondoren, kontrastatu, egiaztatu, subjektiboa eta objektiboa dena desberdindu, eta baliagarria den informazioa atera. Edonola ere, pauso horiek ez diote historialariari egiara eramango, kontakizuna historialariaren nahitaezko subjektibotasunak baldintzatuko duelako.²⁸

Aldiz, Zamorak historialariaren eta memoriaren arteko distantzia gaitzesten du Auschwitz bezalako gaiez mintzatzean. Zehazki, historiografiak eragiten duen normalizazio prozesua kritikatzeko du. Izan ere, “Auschwitz ez da dena, egunerokotasunean aurkituko dira klabeak” bezalako baieztapenek, historia ixteko eta ez aztertzeke arriskua dutela salatzen du. Historialari batek baino gehiagok Auschwitz aztertzerako orduan aldarrikatu duten distantziaren bitarteko objektibotasunak ez du zentzurik. Zamoraren ustez historiografiak ez du genozidioaren aspekturik funtsezkoena azaltzen; hau da, esanahiarena. Ondorioz, azterketa historikoa egiterako orduan,

²⁶ GABORIT, M., “Memoria histórica: relato desde las victimas” in *Pensamiento Psicológico*, 2. bol., 6. zbk., 2006, 12-13. orr.

²⁷ Opus cit., ZAMORA, 2011, J., 5. orr.

²⁸ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 32. orr.

perspektiba berri batetik egin beharko da. Ikuspuntu berri horrek Auschwitzeko gertakizun guztiak era singular eta erradikal batean interpretatzea exijitzen du. Bestela, analisi historikoak iragana funtzionalizatu eta okupatuko du ahaztura eraginez, eta azkenik, katastrofearen konplize bihurtuz. Hau ez gertatzeko, historiografia kultura anamnetikoak konplimentatu beharko luke, gizarte kontziente izan dadin objektibotasun orok ahaztura daramala.²⁹

Historia eta memoriaren arteko erlazioa

Bien arteko erlazioa ez da beti bateragarria izan. Historizismoaren porrotaren eta klase azpiratuen agerpenaren ostean, Historia eta memoria banandu egin ziren. Historia estatuaren ondasuna bihurtu da artxiboak bere esku daudelako. 60. mendean E.P. Thompsomen lanei esker, Historia Sozialaren lehen pausuak eman ziren. Estatuak zituen artxiboek klase azpiratuen berri ematen ez zuenez, beste iturri batzuk bilatu behar izan ziren. Testuinguru horretan, memoria klase azpiratuei buruzko historia egiteko elementu baliagarria bihurtu zen.³⁰

Historiaren eta memoriaren bizikidetzaren hasieran, memoriak ez zuen bere espazioa aurkitzen. Izan ere, memoria eta historia aurkako esanahia zuten kontzeptuak zirela uste ziren, Halbwachsen kasu. Izan ere, historiak modu objektiboan aztertzen zuen iragana baina ez zuen kontaktu zuzenik, eta memoria aldiz iraganean sortu eta egunerokoan berraldatzen zen. Beste hitz batzuetan, historiak iragana sailkatzen zuen eta memoriak zeharkatu. Ikuspuntu positibista honetatik, historia objektiboa da eta iraganak ez dio eragiten eta memoria bizitutako momentuen oinarritutako kontakizun subjektiboa da.³¹ Edonola ere, nire uste apalean, Halbwachsek, berriz, zentzu osagarri batean planteatzen du erlazioa perspektiba kronologikotik. Memoria eta historiaren arteko erlazioa, bestetik, kronologikoki osagarriak izango lirateke haien artean. Hau da, memoria kolektiboa talde batek eusten duen bitartean, alferrikakoa da historia idaztea. Ordea, memoria kolektiboa eusten duten norbanakoak desagertzen badira edo norbanakoek memoria indibidual horiek alboratzen badituzte, memoria kolektiboa desagertu egiten da eta historiak berreskuratu dezake. Ondorioz, historiak iragana eta oraina lotzeko funtzioa beteko luke. Dena dela, historiak ez du memoria kolektiboa birsortuko, soilik deskribatu eta analizatu egingo du iragana, garaia historikoarekiko distantziaz sortuz.

²⁹ Opus cit., ZAMORA, J., 2011, 17. orr.

³⁰ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 34. orr.

³¹ Ibidem, 35. orr.

Distantzia hori deuseztatzeko historiak zentratu egin beharko du detaile txikienetan, nolabait enpatia sor dezan. Ordea, saiakera horrek historiaren irakurleen kopurua murriztu egingo luke.³² Pierre Nora, halaber, bi kontzeptuak kontrajarriak ikusten ditu; memoria absolutua da eta historia erlatiboa. Baina historiak objektiboa eta unibertsala izan behar du, memoria subjektiboa eta singularra den bitartean.³³

Ordea, ikuspuntu positibista hori bertan behera uzten duten hainbat lan aurkitu ditzakegu. Lan horiek historiaren eta memoriaren arteko hibridazioak izango lirateke. Hauen bitartez, nolabait, memoriak historiaren angelu itsuak eta orokortasunak berrikusi ditzake, eta alderantziz, historiak memoriaren subjektibotasuna diskurtso kritikoan transformatu dezake, baita analisi autokritikoan bilakatu. Esate baterako, Pierre Vidal-Naquetek, bere autobiografian, oroitzapenak historialariaren zorrotasunarekin kontatzen ditu iturriak egiaztatuz eta bere memoria frogan menpe jartzen du, modu kritikoan aztertuz. Gainera, periodo historikoari buruz dituen jakintzetan oinarritzen da idazterakoan. Obra hori, beraz, Halbwachs, Nora eta abarren dikotomiatik at geratzen da, momentu berean memoriaren eta Historiaren erregistroa konbinatzen dituelako.³⁴

Frantzia, memoriaren eta historiaren arteko interakzioa gauzatu da kolonialismoa aitzakiatzat hartuz. Argelian liberazio gerrari buruzko Historia ofiziala azkar egin bazen, Frantzia ahanzturak ezin izango zuen betirako iraun. Azkenean, idatzita geratu behar zuen modu batera edo bestera, zeina memoriaren aniztasunak elikatuko zuen (*pie-d-noirs*-ena, *harkis*-ena, immigrante argeliarrena... hainbeste memoria eta kontakizun existitzeak ezinezkoa bihurtzen du enpatia unilaterialaren bidez idaztea Historia. Ondorioz, memoria ugariak paraleloan eragingo dute elkar, eta historialariak kritikoki landu beharko ditu.³⁵

Joera postmodernoarean indarrak eragin zuen 70. hamarkadan memoriaren inguruko kontzepzio berria. Historia kontzeptu hotz, unibertsal eta holistikoarekin erlazionatzen da, eta memoria indibidual zein kolektiboa egiazkoa eta boteretsua kontsideratzen dira. Are pisu handiagoa eskuratzen du memoriak erlatibitate postmodernoarekin, zeinak historiografia narrazio literarioaren parean jartzen duen heinean, ondorioz, memoria

³² Opus cit., HALBWACHS, M., 2004., 81. orr.

³³ NORA, P., "Between Memory and History: Les Lieux de Mémoire", in *Representations*, 26. zbk., California, 1989, 17. orr.

³⁴ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 30. orr.

³⁵ Ibidem, 34. orr.

narrazio historiografiko alternatibo gisa erabili daiteke, historiaren zientifikotasuna ukatuz.³⁶

Joera hori jarraituz, 80. hamarkadan zehar, memoriaren inguruko interesa hazi egin zen. Horrekin batera, 60. mendean historia sozialean oinarrituz egiten hasi ziren metarrelatoek indarra galdu zuten.³⁷ Izan ere, Lyotardek esan zuen bezala, ezinezkoa zen Auschwitz buruzko azterketa bat egitea garapen sozialaren gertakizun antagonikoa delako, eta ondorioz, historiaren logikaren barnean azalpenik ez duelako.³⁸

Carrerasen aburuz, bizirik daudenen memoriei buruz hitz egitea konplikatu da historialariei aurre egiten dielako. Gainera, erlazio hori areagotu egiten da Holokaustoari buruzko historialarien eta lekukoen artekoa denean. Izan ere, lekukoak iraganari buruzko memoriak salbatu nahi ditu historiaren mehatxu homogeneizatzailetik. Honek, izatez, duen singularitasuna eta injustizia disolbatu egiten dituelako azalpenezko kontakizun orokor batean. Egoera hori muturrera eramanez gero, historiaren eta memoriaren arteko harremana ezinezko bihurtzen da. Elie Wieselen hitzetan, Holokaustoak dituen ezaugarri bortitzak gizartearen ikuspuntutik kontutan edukita, ezinezkoa da azaltzea. Soilik han egon zirenek jakin dute zer izan zen eta, ondorioz, historialariek ez dute zer esanik.³⁹ Jarrera honen arabera, memoriak iragana azaltzeko duen gaitasuna – eta boterea- historiari gailentzen zaio. Aurkako jarrera hartu zuen Primo Levik, zeinak gehiegizko ulermenaren beldur den eta ez zuen ukatzen historiaren ekarpena. Are gehiago, bere ustez, kontzentrazio esparruei buruzko ezagupenak eskuratzeko lekukoen esperientzia ez da egokia, baizik eta historialariak duen distantzia beharrezkoa da.⁴⁰

Gaur egun, hedabideek luzatzen dituzten kontakizunak ugariak eta garrantzitsuak diren testuinguruan, memoriak eta Historiak erlazio dinamikoa dute; memoriak, Historiatik datozen informazioak asimilatzen ditu eta Historiak, geroz eta testigantza eta oroitzapen gehiago erabiltzen ditu iturri bezala. Harreman horrek ez du bi terminoen arteko ezaugarri propio eta desberdintasunak ezabatzen, baina loturak azpimarratzen ditu. Harremanaren intentsifikazioak, batzuen iritziz, historialariaren etorkizuna ziurtatu eta

³⁶ Opus cit, ERICE, F., 2008, 84. orr.

³⁷ CARRERAS, J. J., “¿Por qué hablamos de memoria cuando queremos decir historia?”, in SABIO, A., FORCADELL, C., (kord.), *Las escalas del pasado. IV Congreso de Historia Local de Aragón*, Huesca, 2005, 22. orr.

³⁸ CARRERAS, J. J., *Razón de historia*, Marcial Pons, Madril, 2001, 344. orr.

³⁹ Opus cit., CARRERAS, J. J., 2005, 21. orr.

⁴⁰ PRIMO LEVI, *Los hundidos y los salvados*, El Aleph, Bartzelona, 2002, 22. orr.

gizarteari zerbitzua hobetuko lituzke; ordea, memoria kulturala baztertu ezker eta munduko gertakizunengandik salbu biziko bagina, gure mezuak ez luke entzulerik edukiko eta bolizko dorre batean geratuko ginateke gatibu.⁴¹ Historialaren ikuspuntu pragmatiko hori ez bezala, Vidal-Naquetek perspektiba etiko-politikotik aztertu du memoriaren eta Historiaren arteko erlazioa. Bere ustez, bi terminoen arteko diferentziak kontuan hartuta, historialari gutxik lortu dute memoriari buruz hausnartzea eta ematen dieten abantailez baliatzea, hau da, iraganeko bizitza indibidualen edo belaunaldien arteko gertakizunen errepresentazioen transformazioak aintzat edukitzea eta zukua ateratzea. Lekukoak, Varsoviako ghettoen kronista batzuk izan daitezkeen bezala, historialariak dokumentuak aztertuz eskuratu ezin ditzakeen informazioa bereganatu dezakete.⁴²

Historiaren eta memoriaren arteko lotura saihestezinak ez du inplikatzeko nahastu egin behar direla. Portellik adierazten duen moduan, testigantzen erabilerak metodo propioa du eta gertakizun objektiboekiko ezberdina da. Memoriaren partzialtasuna protagonistaren barne posizioaren ondorioa den bitartean, historialariaren ikuspegia kanpotik dator. Lekukoaren kasuan, zailtasunak ditu gertakariak ulertzeko eta testuinguru fisiko osoa ezagutzeko; ez, aldiz, historialariak, zeinak kanpoko ikuspegiaren eta ofizioaren ondorioz gaitasunik horiek dituen.⁴³ Distantzia kronologikoak nolabaiteko pantaila babeslea sortzen du historialariaren eta iraganaren artean, baina lana burutzen duen heinean sortzen zaion emozioak harresi kronologikoak ezereztu dezake. Enpatia horri historialariak dituen bizipen indibidualei gehitu ezker, ez du zertan kaltegarria izan behar.⁴⁴ Aitzitik, aberasgarria izan daiteke historialaria kontziente bada eta dominatzen baldin badaki. Are gehiago, LaCapraren iritziz, biktimarekin enpatizatu ezker, errespetua eta lastima sentitzen dira, baina ez du inplikatzeko identifikazioa.⁴⁵

Bestetik, Traversoren ustez, memoriaren eta historia kontrajartzea arriskutsua eta eztabaidagarria da, are gehiago hainbat adituek dioten bezala bateraezinak direla

⁴¹ ERICE, F., "Combates por el pasado y apología de la memoria, a propósito de la represión franquista", *Hispania Nova*, Separata, 6. zbk., 2006, 17-18. orr.

⁴² VIDAL-NAQUET, P., *Los judíos: la memoria y el presente*, Fondo de cultura económica, Madril, 1996, 96. orr.

⁴³ PORTELLI, A., "Lo que hace diferente a la historia oral", in MOSS, W., PORTELLI, A., *et al.*, *La historia oral*, CEAL, Buenos Aires, 1991, 38. orr.

⁴⁴ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 32. orr.

⁴⁵ LACAPRA, D., *History in Transit: Experience, Identity, Critical Theory*, Ithaca, Cornell University Press, 2004, 525. orr.

baieztatzea edo menderaezinak kontsideratzea. Bere iritziz, bi diziplinen arteko interakzioak sortzen duten tentsioen artetik idazten da Historia.⁴⁶ Funkesteinen iritziz, aldiz, Historia eta memoriaren arteko frikzioaren ondorioz espazio berri bat sortzen da “*kontzientzia historikoa*” deritzona.⁴⁷

Memoria historikotik memoriaren espazioetara

Memoriaren espazioa 80. hamarkadan Pierre Nora-ri asmatutako terminoa izan zen. Lehenik eta behin, memoria kolektiboa finkatu, trinkotu, gauzatu, babestu eta espresatzen den lekuen multzoa bezala definitu zuen. Terminoa borobilduz, zera izango litzateke Nora-ri hitzetan, “zentzua duen unitate oro, maila materialean edo idealean, eta gizonaren borondateak edo denboraren igarotzeak edozein komunitateren ondare memorialaren elementu sinboliko bihurtu duena”.⁴⁸ Hau da, ez da oroimena burutzen den edozein leku, baizik eta memoriak ekin egiten duena. Horregatik, ausazko leku bat memoriaren espazio bihurtzeko, bi baldintza behar dira; bata, memoria anitzen arteko bidegurutze izateak eta bestea, denboran zehar irauteko gaitasuna, hala nola berritua eta behin eta berriro bisitatua izateko joera.⁴⁹

Memoriaren espazioak memoria kolektiboa mantentzeko modu bat dira, zeina memoria historikoaren forma bat den. Honela, memoriari jarraipena emango litzaioke eta ahanzturari erresistentzia egin. Hau da, memoria berreskuratzeko espazioa da. Memoria historikoaren forma bat denez, agente politiko eta kulturaleri aurre egingo die. Iragana gaur egun administratzeko modu bat da, ez soilik museoak edo oroigarriak. Ondorioz, espazio hauetan, orainak lehenaldia nola eguneratzen duen ikus ahal izango da.⁵⁰

Museoa: memoria berreskuratzeko instrumentua

⁴⁶ Opus cit., TRAVERSO, E., 2007, 31. orr.

⁴⁷ FUNKESTEIN, A., *Perceptions of Jewish History*, University of California Press, Oxford, 1993, 6. orr.

⁴⁸ NORA, P., “Comment écrire l’histoire de France” in NORA P., (ed.), *Les lieux de mémoire*, 2. tomoa, Gallimard, Paris, 1992, 20. orr.

⁴⁹ MONTAÑO, E., “Los lieux de mémoire: una propuesta historiográfica para el análisis de la memoria”, in *Historia y Grafía*, 31. zbk., 2008, 3. orr.

⁵⁰ Opus cit., LLONA, M., 2009, 376-377. orr.

Aurreko definizioa ontzat hartuz, museoak memoria produzitu dezake eta gordelekua kontsideratu daiteke. Izan ere, iragana kudeatzen du oroitzapenak produzituz eta gogoratzeko errituak ezarriz. Halaber, gaur egun memoria historikoa sortzeko modurik plastikoena eta eskuragarriena museoek osatzen dute. Horregatik, instrumentu baliagarriak eta ezinbestekoak dira gertakizun zehatz batek errekonozimendu soziala eta publikoa lor dezan.⁵¹

Memoria mantentzeko eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko hainbat memoteknika erabili dituzte gizarte ezberdinek. Horretarako, juduek adibidez, zenbait objektu sinboliko erabili zituzten, zeintzuen bitartez zentzumenek memoria ordezkaten eta eskuratzen zuten (bizitza garratza dela irudikatzeko, esate baterako, fruitu garratza kontsumitzen zituzten). Beraz, ahozko azalpenek eta zentzumenek bat egiten dute.⁵² *The thieving hand* pelikulan, esate baterako, ikusten da nola posiblea den barneratzea besteen memoriak teorikoki ezinezkoa zenean arrazoi zehatz batzuegatik – etnia, arraza, biologia-. Zeremoniek, ondorioz, erakusten dute nola ahal den esperientziak sentitzea bizitu gabe.⁵³ Horretarako, bederen, enpatia ezinbesteko baldintza da. Sinpatiak ez bezala, enpatiak ez du gertutasun natural baten beharra gauzatzeko, hots, ez da nolabaiteko bi subjektuen arteko harremana behar – hots, aipatu berri diren faktoreak; etnia, arraza, eta abar-. Enpatiak bestearekin identifikatzea eta negoziatzea daramatza bere baitan, eta ondorioz, esentziala da bestearekin harreman etikoa eduki nahi bada. Memoria protetikoa⁵⁴ eskuratzeko ezinbestekoa da enpatia sortzea, beti ere, bestearen barruan sartu, memoriak ezagutu eta haren modu berean bizitzea eta haiek antzematea eta gureekiko desberdintasunak desberdintzea bada helburua.⁵⁵

Egia baldin bada memoriak gure barnean hazten direla kanpotik jasotzen ditugun lotura afektiboen ondorioz, memoria horietako askok bizitza kolektiboan eragina edukiko dute. Holokaustoa eta iraganeko terrorea logika horren adibide egokiak dira. Hori dela eta, enpatia maila altuak sortzen diren kasuetan, norbanakoak askotan irakurri edo

⁵¹ Opus cit., LLONA, M., 2009, 377. orr.

⁵² LANDSBERG, A., *Prosthetic Memory: The Transformation of The American Remembrance in the Age of Mass Culture*, Columbia University Press, Nueva York, 2004, 26. orr.

⁵³ Ibidem, 29. orr.

⁵⁴ Opus cit., LANDSBERG, A., 2004, 28. orr., Landsbergekin asmatutako terminoa da *memoria protetikoa*. Honen bitartez, esan nahi duena zera da; hildakoen memoriak sentimenduen bidez berreskuratzen diren heinean, protesi fiktizioak jartzen zaizkiela hildakoei, horrela nolabaiteko protesien multzo baten bidez berpiztuz.

⁵⁵ LANDSBERG, A., “Memory, Empathy, and the Politics of Identification”, *International Journal of Politics, Culture, and Society*, 22. bol., 2. zbk., 2009, 226. orr.

entzun duen zerbaiten ondorioz, sinesgarria da esperientzia batzuk bizi dituela aitortzea, biziaren errealean halakorik egin ez badu ere.⁵⁶ Logika honek argi eta garbi erakusten du Assmannek dioen memoriaren dimentsio sozial eta afektiboen eragina berebizikoa izan daitekeela.⁵⁷ Honela demostratuta geratzen da memoriak jasan ditzakeen desordenak eta egiazaletasunak bateragarriak direla azken muturreraino. Ideia horrek Landsbergen memoria protetikoen balioa indartzen du. Izan ere, Landsbergeek sentimenduen bitartez enpatia sortzea eta enpatiaren bidez memoria berreskuratzea proposatzen du. Beraz, Assmannen teoria horrek frogatzen du posiblea dela Landsbergen ideia eraginkorra izatea.

XX. mendeko aurrerapen teknologikoen, bereziki musikan edo filmen munduan emandakoek, esperientzia birtuala eta egiazkoa desberdintzea zaildu digute. Fredic Jamesonek dioenez, postmodernitatean pelikulek esperientzia faltsuak sortzen dituzte. Holokaustoaren Memoriaren museoak, adibidez, esperientzia irrealak sortzen du. Museo honek historia memoria indibidualen bitartez sortzea proposatzen du, iraganeko kolektibo edota kulturen historiak bizitzea ahalbidetuz. Ordea, esperientzi horiek eguneratuta ez badaude, hots, gaur egungo baldintzei ez badira egokitzen, ez dira behar bezala sentituko.⁵⁸ Dena dela, Jamesonen konklusioek agerian uzten dute teknologien bitartez esperientziak berreraiki daitezkeela. Nahiz eta teknologia berriak baliabide garrantzitsua izan, konplikatuak da errepresentazio aproposak burutzea, hau da, eszenatoki batzuk berreraikitzea eta sinesgarriak izatea oso zaila da (esate baterako, gas ganbarak). Horren aurrean, memoria mantentzeko eta transmititzeko bideetako bat memoria zentzumenen bitartez transmititzea da.

Ameriketako Holokaustoaren Memoriaren museoak

Museoari esker, indibiduoaren eta objektuaren arteko kontaktu pertsonala eta emozionala gauzatu daiteke, zeina bizitzan eduki ez ditugun esperientzietatik haratago doan. Prozesu horrek besteekin erlazionatzea eta erantzukizun sentimendua bizitzera bultzatu gaitzake. Holokaustoaren Memoriaren museoan zentratuz, 1993an inauguratu zen. Egiturari dagokionez, 3 planta ditu: Nazien hazkundera 1933-39, Azken soluzioa 1940-45 eta azken kapitulua. Bisitariak bide bakarra du museoa ikusteko, hau da,

⁵⁶ Daniel Granzfriedek aztertutako kasuari egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere, Bruno Dössekker-ena (goitizena).

⁵⁷ Opus cit., ASSMANN, J., 2006, 4. orr.

⁵⁸ JAMESON, F., *Postmodernism or The Cultural Logic of The Late Capitalism*, Verso, Londres, 1991, 56. orr.

ibilbidea markatuta dago. Bisitariak esertzeko 5 leku besterik ez daude. Horrez gain, fisikoki eta mentalki nekagarria da museoa apropos. Helburua esperientzia horren bitartez jakinduria eskuratzea da. Horrez gain, historia memoria indibidualera bihurtu nahi da memoria protetikoaren produkzioa lortzeko asmoz. Hala, historia barneratzeko eta ulertzeko beste modu bat eskuratzen da, historiografia akademikoa alde batera utziz. Leon Wiselteren hitzetan, museoaren irakaspena historiak memoria lagundu behar duela da.⁵⁹

Museoaren helburuak konplimentatzeko, aukera ona izango litzateke hedabideek jakinduria, erantzukizuna eta enpatia bezalako baloreak erakustea. Bide horretatik, jendeak esperientzia ezberdinetako sentimenduak bizi ahal izango ditu, halaber, jakinduria eskuratuz; horiek izango lirateke memoria protetikoaren oinarriak. Honela, hedabideek eragindako prozesu honen bidez biologikoki, etnikoko edo espazialki galarazita egon diren pertsonen iraganeko esperientziak sortutako emozioak bizi ahal izango dituzte. Arkitekturak eta objektuek sortutako emozioekin batera, mikrohistoria eta narrazio historikoak ezagutuko ditu bisitariak. Objektuen garrantzia berebizikoa da lekukoaren rola jokatzeko dutelako. Zapatilek, esate baterako, zentzu sinboliko handia dute pertsona imajinatzeke abiapuntua direlako (behetik gorako zentzuan: zapatila, oina, hanka, gerria, gorputza, lepoa, burua). Gainera, zapatilen pilaketa kaotikoak hilketen magnitudea erakusten du. Era berean, gizakiak mimetizatzeko duen gaitasuna jartzen du martxan, zeina Taussigen hitzetan, konexio fisikoaren bitartez gauzatzen da. Ordea, Landsbergen iritziz, museoaren helburua ez da judutarren presentzia nabaritzea, hutsune fisiko zein emozional sakona baizik.⁶⁰

Mimetizazio prozesuaren bitartez ahalbidetzen du museoak enpatia. Enpatiaren bitartez norberarengandik kanpo sortzen diren emozioak norberaganatu ditzake. Horregatik izan behar du museoak transferentzia espazio bat, hau da, sufritu zuenaren eta gaur egun bizi denaren artekari lanak egin behar ditu, sentimenduak sorraraziz eta haietan barneratuz, jakinduria eskuratuz. Nahiz eta esperientzia errealaren eta esperientziaren memoriaren artean distantzia handia egon, memoriak bereganatzen ditugu eta haietzako protesiak bihurtu, hots, bizitza eman. Norberak burututako memoria ezberdina izango da, bakoitzak ezaugarri propioak izango dituela. Baina garrantzitsuena memoria kolektiboa

⁵⁹ Opus cit., LANDSBERG., A., 2004, 129. orr.

⁶⁰ Opus cit., LANDSBERG., A., 2009, 221. orr.

eraikitzea da, eta honen bitartez identitatearen parte izan daitezten. Horrela, Holokaustoaren errepresentazioa edukiko du norberak.⁶¹

Enpatia sortzeko beste hainbat metodo

Teknologia berriak sentimenduak sortzeko eta esperientziak bizitzeko gaitasuna frogatu zuen kasua *Schindlerren zerrenda* pelikularena da. Eduki zuen inpaktu mediatikoa zela eta, Landsbergen ustez memoria kolektiboaren parte izatea lortu du. Bere iritziz, eredu horrek, edozein jatorri duen pertsonari bizi ez dituen esperientziak bizitzeko aukera irekitzen dio. Modu horretan, espazio berri bat ireki zen Holokaustoari buruz idazteko, hitz egiteko, antzetzeko... hots, kulturaren parte izan zedin. Hala, naziek egindako genozidioak oihartzun handia edukitu zuen Estatu Batuetan eta, egun batetik bestera, haiei buruz hitz egiten zen espazio ezberdinetan. Gainera, ez zuen soilik pelikularen inguruko eztabaida sortu; aitzitik, hausnarketa soziala eta historikoa ere eragin zituen. Are gehiago, hezkuntzak Holokaustoarekiko afekzioa eta identifikazioa lortzen ote zuen eztabaidatu zen. Spielbergek zuzendutako film arrakastatsuz gain, serieak grabatzen hasi ziren 90. hamarkadan. Pauso hauek lagungarriak izan ziren Alemanian juduenganako identifikazioa eragin zutelako eta ordura arte tabuak ziren gaiez mintzatea ahalbidetu zitelako. Masa kulturari esker zabaldu zen bolada horren bitartez, identifikazio kolektiboaren ondorioz dolu-aldi kolektiboa eragin zuen.⁶²

Edonola ere, Landsbergen iritziz, identifikazio eta bizipen maila altuak lortzeko, ezinbesteko baldintza da errealismoaz baliatzea. Izan ere, hainbat dokumentalen kasuan nahiago izan da krudelkeriarekiko distantzia mantentzea. Ondorioz, irudien eta ikus-entzulearen arteko harremana hoztu egin izan da kutxu inpersonala hartuz. Bada, ikus-entzulearen identifikazioa gizatasuna desagertzean sortzen da. Beste hitz batzuetan esanda, *Schindlerren zerrendak* sortzen duen enpatia eta erakarpen maila agertzen diren irudien eta ahotsen araberakoa da. Ordea, Holokaustoaren ezaugarri historikoek identifikazio maila mugatzen dute genozidioaren helburua giza talde konkretu bat,

⁶¹ Opus cit., LANDSBERG, A., 2004, 135-139. orr.

⁶² Ibidem, 122-124. orr.

juduak, sarraskitzea delako eta beraz, pertsonak eta gertakizunen kopiak oso mugatuak edo hutsala direlako. Modu ezberdin batean, *Pianista* pelikulak ere, identifikazioa sortzen du baina beste balore batzuk indartuz. Azken honen kasuan, ez da hainbeste juduek jasandako muturreko bortxaketa azpimarratu nahi, gabezia kualitatiboa eta abstentzioa baizik.⁶³

Empatia historikoa, hau da, bestearen lekuan ipintzea, historiako klaseetan aplikatu daitekeen beste baliabide bat da Pizarro eta Cruzen iritziz, zeinak edukien ikasketa zuzenarekin alderatuz gero desberdinak diren. Nahiz eta Pizarro eta Cruzen ikuspuntua irakaslearena den, eta ondorioz, hartzailea ikasleria izan, Landsbergen ildotik jarraituz, ikasleria ikus-entzuleak ordezkatu lezake. Hau da, Landsbergen ideietara egokitu daiteke bi irakasleen proposamena.⁶⁴ Haien ustez, Historiak diziplina gisa bizitza eta esanahia berreskuratu dezan aukera ona da empatiaren bitartez baldintza bikainak sortzen direlako ikasleriarentzako – edo ikus-entzulearentzako- ikasketa prozesuan. Bi irakasleek froga hauek Lehenengo Mundu Gerra lantzeko erabili dituztenez, ikasleek soldadu haiek egunerokoan erabilitako ondasunekin interaktuatzen dute. Esate baterako, frenteko lubakietan egongo balira bezala, gutunak idatzi eta irakurri beharko dituzte. Lan hori burutu baino lehenago, ikasleak lubakietako, frenteko, batailetako bizi baldintzen eta erabilitako armen berri edukiko du oinarri teoriko minimoa lortzeko. Horretarako, dokumentu historikoak erabili dira (egunerokoak, benetako gutunak, gerra lehen pertsonan bizitu zutenek idatzitako nobelak...). Horrez gain, irudiak, pelikula zatiak eta dokumentalak aztertzeke urratsak erakutsi dira.⁶⁵

Data zehatzez, herrialdeez, aliantzez, agintarien izenaz eta batailez haratago, soldaduen sufrimendua eta mina aurkitzen da. Hori da zehazki, Pizarro eta Cruzen aburuz, ikasleriak ezagutu behar duena periodo hau ikasterako orduan. Horregatik, gutunaren idazketan oinarritzen den proposamen didaktiko honek, ikasleak soldaduaren jarrera berdina eduki zezan jakintza nahikoarekin, emaitza positiboak eman ditu. Zentzu honetan, ikasleriak interes handiagoa erakusten du Historian, gertutasunez ikasten

⁶³ Opus cit., LANDSBERG, A., 2009, 224. orr.

⁶⁴ Ibidem, 227. orr.

⁶⁵ PIZARRO, F., CRUZ, P., “Empatía en clase de historia: los alumnos serán soldados de la Primera Guerra Mundial” in *Clío: History and History Teaching*, 2014, 2. orr.

dutelako, eta zer esanik ez, eduki errazago barneratzen du testuinguruan kokatzen direlako.⁶⁶

Sentimenduen bitartezko enpatia sortzeko eta memoria berreskuratzeko metodoak antzak dira ikusten ari garenez. Adornok dioenaren arabera, artearen eta literaturaren bitartez ez da soilik norberaren identitatea salbu jartzen, baizik eta beste norbaiten memoria eta identitatea berreskuratu daitezke. Hori autore guztiek egiten duten zerbait da, eta batzuen kasuan, helburu nagusia izatera heldu daiteke. Besteen memoriak salbu jarritz, beraien historia berreraikitzen da, eta bide batez terroreari aurre egin ez ziotenei. Horrek, gaizkitik askatzen die nahiz eta bertan hil, hau da, kontzentrazio esparrutik kanpora ateratzen dituzte, gorpuak bertan gelditu arren. Eta askatzen dituen horrek justizia egiten du; memoriak pertsona haiek jasandako mespretxuak, zigor injustuak eta irainak ezabatzen ditu, inposatzaileek ezarri nahi zuten ahanzturaren aurka. Oroimenak duintasuna itzultzen die eta historian dagokien lekua eman.⁶⁷ Beste hitz batzuetan, epaiketetatik kanpo, memoriak justizia lanak egin ditzakeela indibiduen artean.⁶⁸

Adornoren aburuz, besteen memoriak mantentzeko literatura edo beste edozein artelan erabiltzea moralki oso garrantzitsua da. Haratago joanda, memoria pertsona bakar batean zentratzen denean, jarrera horretatik sortzen den egoismoa besteen minekiko sentikortasunik ezean bilakatu daiteke. Artea, beraz, elementu egokia izango litzateke gizarteak bere erruetatik ikasi dezan. Azken finean, Adornoren iritziz, artea izango da injustiziak konpontzeko eta esperantzak betearazteko giltzarria etorkizunean gizartea bakezalea izan dadin.⁶⁹

Museoek, arteak eta abarrekoek sor ditzaketen sentimenduen aurka, Bensoussanen esanetan, Holokaustoaren inguruko errepresentazioak egitea zalantzan jartzen du. Izan ere, pedagogo askoren ustez sortzen duen zirrarak ez gaitu babesten ezta irakasten ere. Bere ustez, “penaren pornografia” eta “amildegiaren koloraztea” hutsak dira errepresentazioak. Hain zuzen ere, krimenari, hildakoei edo horroreari forma eta aurpegia jartzea bere magnitudea eta izaera gutxitzea da.⁷⁰

⁶⁶ Opus cit., PIZARRO, F., CRUZ, P., 2014, 40. orr.

⁶⁷ ADORNO, T., *Educación para la emancipación*, Gerd Kadelbach, Madril, 1998, 20. orr.

⁶⁸ FORGES, J., *Educar contra Auschwitz. Historia y memoria*, Anthropos, Bartzelona, 2006, 16. orr.

⁶⁹ TAFALLA, M., *Theodor Adorno, una filosofía de la memoria*, Herder, Bartzelona, 2003, 223. orr.

⁷⁰ Opus cit., BENSOUSSAN, G., 2010, 109. orr.

Ondorioak

Memoriak iragana eskuragarri bihurtzen du oroimenaren bitartez, zeinak lehenaldiko esperientzien aktibazioa esan nahi duen orainaldian erabiliak izan daitezzen. Ordea, kontuan eduki behar da giza taldeek denboran zehar prozedurak garatu dituztela iraganeko erregistroak mantentzeko. Horrela sortu ziren oharren bitartezko sistemak, poemak, istorioak, errituak edo monumentuak, memoria mantentzeko helburuarekin. Hau da, indibiduo bakoitzaren bizitzak jartzen dituen muga kronologikoetatik haratago esperientziek iraun dezaten eta eskuragarri egon daitezzen. Artefaktu horiek ahalbidetu egiten dute indibiduoek taldeak metatu duen esperientzia lortzea. Beste hitz batzuetan, kultura eraikitzen dute.⁷¹ Ondorioz, baieztatu dezakegu Landsbergekek museoaren bitartezko enpatiaren proposamenarekin kultura eraikitzeko ahalmena duela. Hau da, Bigarren Mundu Gerran judutarrek jasan zuten egoeraren inguruko kultura sortuko luke, denboran iraunkorra izango litzatekeena. Ordea, iraganeko esperientziak berreskuratzea helburu duten museoek gai berdina jorratzerakoan, kulturen arteko talka gertatuko litzateke, museo bakoitzak perspektiba berri batetik aztertuko lukeelako gaia.

Bestalde, memoria historikoa hitzaren egokitasuna – baita existentzia ere- ezbaian jartzen da historialarien, soziologoek, filosofoek eta abarrekoen artean. Halbwachsen ikuspuntua abiapuntu hartuz, memoria kolektiboa talde bateko norbanakoek amankomunean talde bezala dituzten memoriak, erritoak, ohiturak eta abarrek osatzen dute. Talde identitate hori osatzen duten osagarriak dinamikoak dira eta taldea desagertzen momentuan, memoria kolektiboak bizia galduko du. Existitzen jarraitu dezan, taldea desagertu ondoren, ezinbestekoa da gauzatzea, Halbwachs berak dioen bezala, hots, historia egitea. Hori dela eta, memoriak bizirik jarraitzen du historikoa bihurtzen delako, estatikoa eta iraunkorra. Beste hitz batzuetan esanda, memoriak ezaugarri propio garrantzitsuenetakoa galtzen du – bizitasuna-, baina iraunkortasuna lortzen du. Ondorioz, nahiz eta “memoria historikoa” hitzak termino kontrajarriak osatu, memoriaren eboluzioa irudikatu nahi du hitzak. Logika hori jarraituz, baieztatu daiteke terminoak zentzua duela.

⁷¹ Opus cit., BAKHURST, D., 2000, 43-44. orr.

Bensoussanen aburuz, ez dira iragana eta oraina elkarren aurka jarri behar. Izan ere, iraganak oraina kudeatzeko lagundu beharko liguke. Garrantzitsuena ez da Holokaustoa, ezta horrorea ere, baizik eta genozidioa eman aurretik hura ahalbidetu zuten gertaera guztiak. Horregatik, Bensoussanek egunerokoa aztertuz aurkituko ditugula Auschwitz berriro ez gertatzeko erantzunak. Indibidualtasunaren bidez lortu daiteke kontzientziarioa. Bada, talde egoeretan ez gara pentsatzeko gai, besteei egiten diegulako kasu ezer zalantzan jarri gabe. Beraz, kontzientzia indibiduala sustatu behar da, behar izanez gero, taldeari aurre egiteko. Hau da, indibidualismo horretatik hasita eraiki behar dira elkarkidetasuna eta hiritartasuna.⁷²

Pertsonalki inpresioa dut gizarteak gogoraraztea barkamenarekin erlazionatzen duela, eta, izatez, ez du zertan hausnarketa bultzatu behar. Izan ere, Holokaustoz oroitzean, gaur egun, juduak gainontzeko mundutik alboratzen ditugu, hau da, Hitlerrek nahi zuena zehatz-mehatz. Heyuda Alkana irakasle judutarraren arabera, nazio bakoitzak erabaki behar du gogoratzea edo ahaztea. Bestalde, Bensoussanen ustez ahanzturak barkamena lortzeko balio dezake soilik biktimak eskatzen badu.⁷³ Bada, gogoratzea bezain garrantzitsua da ahaztea. Iraganeko gertakizunak gogoratzeak esan nahi du orainaldian balioa dutela. Alderantziz, orainean balio ez duten oroitzapenak ez dira aktibatzen, eta ondorioz, ahaztu egiten dira. Ahanzturak dinamika aurrerakoia du, hau da, oroimenak aktibatzen ez diren heinean, desagertzen joaten dira.⁷⁴

Landsbergekek proposatzen duen memoria protetikoa ondorio kontrolaezinak sortu ditzake. Irudien bitartez enpatiazko harremanak eraiki badaitezke, hots, ikuslearen sentimenduak ukitzeko eta ikuspuntua aldatzeko gaitasuna baldin badago, beharbada definitu egin beharko litzateke zein kontakizun den objektiboa eta zein subjektiboa, eta zeintzuk diren helburuak. Gerta daitekeena zera da, gailenduko den kontakizunaren ikuspuntua artelana finantzatzen duenarena izango dela. Honela, manipulazio gordina burutzeko arriskua saihestezina izango litzateke. Landsbergeri dagokionez, etikari eta moralari buruz inongo ñabardurarik gabe hitz egiten du, balore unibertsalek osatuko balituzke bezala.

⁷² Opus cit., BENSOUSSAN, G., 2010, 135. orr.

⁷³ Ibidem, 130. orr.

⁷⁴ Opus cit., BAKHURST, D., 2000, 45. orr.

Bibliografía:

- ADORNO, T., *Educación para la emancipación*, Gerd Kadelbach, Madril, 1998.
- ANDERSON, P., *Los fines de la historia*, Anagrama, Bartzelona, 1997.
- ASSMANN, J., *Religion and Cultural Memory*, Stanford University, California, 2006.
- BAKHURST, D., “Memoria, identidad y psicología cultural” in BAKHURST,, D., BELLELL,I, G., et al. (edk.), *Memoria colectiva e identidad nacional*, Biblioteca nueva, Madril, 2000.
- BENSOUSSAN, G., *¿Auschwitz por herencia?: sobre un buen uso de la memoria*, Anthropos, Bartzelona, 2010.
- CARRERAS, J. J., “¿Por qué hablamos de memoria cuando queremos decir historia?”, in SABIO, A., FORCADELL, C., (kord.), *Las escalas del pasado. IV Congreso de Historia Local de Aragón*, Huesca, 2005, 15-24. orr.
- CARRERAS,, J. J., *Razón de historia*, Marcial Pons, Madril, 2001.
- ERICE, F., “Memoria histórica y deber de memoria: las dimensiones mundanas de un debate académico”, in *Entelequia, Revista interdisciplinar: Monográfico*, 7. znbk., 2008, 77-96. orr.
- ERICE, F., “Generaciones y memoria de la represión franquista: un balance de los movimientos por la memoria”, *Historia Nova*, 6. znbk., 2006.
- FORGES,, J., *Educación contra Auschwitz: historia y memoria*, Anthropos, Bartzelona, 2006.
- FUNKESTEIN,, A., *Perceptions of Jewish History*, University of California Press, Oxford, 1993.
- GABORIT, M., “Memoria histórica: relato desde las víctimas”, *Pensamiento Psicológico*, 2. bol., 6. znbk., 2006, 7-20. orr.
- HALBWACHS, M., *La memoria colectiva*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza, 2004.
- LACAPRA, D., *History in Transit: Experience, Identity, Critical Theory*, Cornell University Press, Nueva York, 2004.

LANDSBERG, A., *Prosthetic Memory: the Transformation of the American Remembrance in the Age of Mass Culture*, Columbia University Press, Nueva York, 2004.

LANDSBERG, A., “Memory, Empathy, and the Politics of Identification”, *International Journal of Politics, Culture, and Society*, Springer, 22. bol., 2. znbk., 2009, 221-229. orr.

LLONA, M., “Memoria e identidades. Balance y perspectivas de un nuevo enfoque historiográfico”, in BORDERÍAS, C. (ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, 2. edizioa, Bartzelona, 2009.

MONTAÑO, E., “Los lieux de mémoire: una propuesta historiográfica para el análisis de la memoria”, in *Historia y Grafía*, 31. znbk., 2008, 165-192. orr.

NORA, P., “Comment écrire l’histoire de France” in NORA P., (ed.), *Les lieux de mémoire*, 2. tomoa, Gallimard, Paris, 1992.

NORA, P., “Between Memory and History: Les Lieux de mémoire”, *Representations*, California University Press, 26. znbk., California, 1989, 7-24. orr.

PIZARRO, F., CRUZ, P., “Empatía en clase de historia: los alumnos serán soldados de la Primera Guerra Mundial”, *Clío: History and History Teaching*, 2014, 1-50. orr.

PORTELLI, A., “Lo que hace diferente a la historia oral”, in MOSS, W., PORTELLI, A., et al., *La historia oral*, CEAL, Buenos Aires, 1991.

PRIMO LEVI, *Los hundidos y los salvados*, El Aleph, Bartzelona, 2002.

RUIZ VARGAS, J. M., “¿De qué hablamos cuando hablamos de “memoria histórica”? Reflexiones desde la psicología cognitiva” in *Entelequia, Revista interdisciplinar: Monográfico*, 7. znbk., 2008, 53-76. orr.

TAFALLA, M., *Theodor Adorno, una filosofía de la memoria*, Herder, Bartzelona, 2003.

TRAVERSO, E., *El pasado, instrucciones de uso: historia, memoria, política*, Marcial Pons, Madril, 2007.

VIDAL-NAQUET, P., *Los judíos: la memoria y el presente*, Fondo de cultura económica, Madril, 1996.

ZAMORA,, J., “Memoria e historia después de Auschwitz” in *Isegoría*, 45. znbk., 2011, 501-523. orr.